



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

X. legegintzaldia

Iruña, 2022ko martxoaren 25a

38. ZK.

### A U R K I B I D E A

#### E SAILA:

##### **Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:**

- Interpelazioa, prezioen igoeraren azkartzeak eta egoera ekonomikoaren narriatzeak kaltetutako pertsonen eta sektoreek jasaten duten inpaktua arintzeko politika fiskalari buruzkoa. María Jesús Valdemoros Erro andreak aurkeztu du (3. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Trantsizio Ekologikorako eta Erronka Demografikorako Ministerioa premiatzen da berriki ditzan gas naturalaren azken baliabideko tarifa erregulatzen duten arauak. Laura Aznal Sagasti andreak aurkeztu du (4. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Vianako Jasokundeko Andre Mariaren eliza zaharberritzeko plan gidari bat egin dezan. Mozioa erretiratzea (5. or.).

#### F SAILA:

##### **Galderak:**

- Galdera, “Joan-etorri” zerbitzurako deialdiari buruzkoa. Ángel Ansa Echegaray jaunak egin du (6. or.).
- Galdera, Nafarroa Suspertu Planaren koordinazio publikoaz arduratzen den Departamentuarteko Batzordearen bilerei buruzkoa. Jorge Esparza Garrido jaunak egin du (7. or.).
- Galdera, Nafarroa Suspertu Planeko Zuzendaritza Batzordearen bilerei buruzkoa. Jorge Esparza Garrido jaunak egin du (7. or.).
- Galdera, Nafarroa Suspertu Planeko gizarte-kontseiluaren bilerei buruzkoa. Jorge Esparza Garrido jaunak egin du (8. or.).
- Galdera, Nafarroa Suspertu Planeko neurriak exekutatzeko aldera Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioarekin koordinatzeari buruzkoa. Jorge Esparza Garrido jaunak egin du (8. or.).
- Galdera, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko medikuen lanpostu hutsei edo egiturazkoei buruzkoa. Cristina Ibarrola Guillén andreak egin du (9. or.).
- Galdera, Carlos III Osasun Institutuaren txosten bati buruzkoa, zeinak gomendatzen edo premiatzen baitu Nafarroako Osasun Ikerkuntzako Institutuaren eremuan aldaketa egitera. Cristina Ibarrola Guillén andreak egin du (9. or.).

- Galdera, ospitale laguntzan neurtzen diren farmaziako adierazleei buruzkoa. Cristina Ibarrola Guillén andreak egin du (10. or.).
- Galdera, Oinarrizko Osasun Laguntzan neurtzen diren farmaziako adierazleei buruzkoa. Cristina Ibarrola Guillén andreak egin du (11. or.).
- Galdera, Nafarroako ondare-ondasunen jabeen betebeharrak beteari buruzkoa. Maiorga Ramírez Erro jaunak egin du (11. or.).
- Galdera, COVID-19aren aurkako txertatze-guneei buruzkoa. Cristina Ibarrola Guillén andreak egin du (12. or.).
- Galdera, jarduketa eskatzen duten higiezinei eta aztarnategiei buruzkoa. Maiorga Ramírez Erro jaunak egin du (12. or.).
- Galdera, Next Generation funtsekin ondare-ondasunetako jarduketak finantzatzeari buruzkoa. Maiorga Ramírez Erro jaunak egin du (13. or.).
- Galdera, Vianako Andre Mariaren inbertsioa ondare publikoko beste jarduketa batzuen aurretik lehenetsia justifikatzen duen azterlan tekniko eta ekonomikoari buruzkoa. Maiorga Ramírez Erro jaunak egin du (14. or.).
- Galdera, Vianako Andre Maria eliza zaharberritze aldera Eliza Katolikoarekin hitzarmena egiteari buruzkoa. Maiorga Ramírez Erro jaunak egin du (15. or.).
- Galdera, Vianako Andre Maria elizako plano bereziak egiteari buruzkoa. Maiorga Ramírez Erro jaunak egin du (15. or.).
- Galdera, Erljioko irakasleei irakastorduak murrizteari buruzkoa. María Roncesvalles Solana Arana andreak egin du (16. or.).
- Galdera, Kontratu Publikoei buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legearen 8.4 artikulua aldatzeari buruzkoa. Ángel Ansa Echeagaray jaunak egin du (17. or.).
- Galdera, nekazaritzako elikagaien plan osagarriari buruzkoa. Ángel Ansa Echeagaray jaunak egin du (18. or.).
- Galdera, gure erkidegoan Ukrainako errefuxiatuak hartzeko baliabideei buruzkoa. Jorge Esparza Garrido jaunak egin du (19. or.).
- Galdera, BAME lanpostuei buruzkoa. Cristina Ibarrola Guillén andreak egin du (20. or.).

**G SAILA:****Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

- Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko 2021. urterako langileen plantilla organikoaren aldaketa, Mahaia-  
ren 2021eko urriaren 25eko erabakiaren bidez onetsia (21. or.).
- 2021eko abenduaren 31n Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuan lanean ari diren funtzionarioen zerrenda  
(22. or.).

**H SAILA:****Bestelako testu arau-emaileak:**

- Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko langileen aldi baterako kontratazioari buruzko Erregelamendua  
(25. or.).

---

**E saila:**  
**INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK**

---

**Interpelazioa, prezioen igoeraren azkartzeak eta egoera ekonomikoaren narriatzeak kaltetutako pertsonen eta sektoreek jasaten duten inpaktua arintzeko politika fiskalari buruzkoa.**

*MARÍA JESÚS VALDEMOROS ERRO ANDREAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko martxoaren 21ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Jesús Valdemoros Erro andreak aurkezturiko interpelazioa, prezioen igoeraren azkartzeak eta egoera ekonomikoaren narriatzeak kaltetutako pertsonen eta sektoreek jasaten duten inpaktua arintzeko politika fiskalari buruzkoa (10-22/ITP-00009).

2. Interpelazio hori Osoko Bilkuran izapideztea.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2022ko martxoaren 21ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**INTERPELAZIOAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari María Jesús Valdemoros Erro andreak, Parlamentuko Erregelamenduan xedatutakoaren babesean, prezioen igoeraren azkartzeak eta egoera ekonomikoaren narriatzeak –Errusiak Ukraina inbaditu ostean okerrera egin duenak– kaltetutako pertsonen eta sektoreek jasaten duten inpaktua arintzeko politika fiskalari buruzko interpelazioa aurkezten dio Nafarroako Gobernuari, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko.

Iruñean, 2022ko martxoaren 17an

Foru parlamentaria: María Jesús Valdemoros Erro

## **Mozioa. Horren bidez, Trantsizio Ekologikorako eta Erronka Demografikorako Ministerioa premiatzen da berrius ditzan gas naturalaren azken baliabideko tarifa erregulatzen duten arauak.**

### *LAURA AZNAL SAGASTI ANDREAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko martxoaren 21ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Laura Aznal Sagasti andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Trantsizio Ekologikorako eta Erronka Demografikorako Ministerioa premiatzen baita berrius ditzan gas naturalaren azken baliabideko tarifa erregulatzen duten arauak (10-22/MOC-00031).

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Mozioa Garapen Ekonomiko eta Enpresariareko Batzordean izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2022ko martxoaren 21ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **MOZIOAREN TESTUA**

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko foru parlamentari Laura Aznal Sagastik, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkeztu du, Garapen Ekonomikorako Batzordean eztabaidatu eta bozkatzeko.

Azken hilabeteotan prezioak eta energiari lotutako kostuak etengabe ari dira gora egiten. Elektrizitatearen igoera izan bada ere izenburuetan nagusitu dena, agerikoak izan diren zenbait gertakari tarteko, hala nola urtegiak hustea enpresen irabaziak handitzeko, negua iristearekin egoerak okerrera egin du; izan ere, gasaren eta berogailuaren prezioaren igoera gordinki azaleratu da, eta horrek eragin nabarmena du gurea bezalako erkidegoetan, bistakoak diren arrazoi klimatologikoengatik.

Hazkunde hori gas horniduraren prezioen igoera orokorraren ondorio da, eta prezioen igoera areagotu egin da Ukrainako gerraren ondorioz. Bada beste inguruabar bat egoera are gehiago okertu duena. Iragan urrian gas naturalaren azken baliabideko tarifaren erregulazio berria sartu zen indarrean. Ebazpen baten bidez, Espainiako Gobernuak Trantsizio Ekologikoko eta Erronka Demografikorako Ministerioaren Energia Politika

eta Meatzeetarako Zuzendaritza Nagusiak gas naturalaren azken baliabiderako sarbidea mugatzen du urteko 50.000 kWh baino gutxiagoko kontsumoetara.

Erabaki horren ondorioz, galdara komunitarioak, auzokide askori zerbitzu ematen dietenak eta gure erkidegoan ohikoak direnak, ezin dira merkatu arautuan sartu eta komunitate horiek merkatu librean joatera behartuta daude, eta horren ondorioz 5 edo 10 aldiz ere garestitu zaie fakturaren zati finkoa. Orain arte gas instalazio komunitarioak etxebizitza-blokeetan berogailua izateko irtenbide merkea izan dira, galdararen mantentzearekin loturiko zamak atari eta pertsona askoren artean banatzea ahalbidetzen baitu. Egia da sistema horrek badituela gabezia batzuk, azken garaioan konpondu nahi izan direnak. Esaterako, kontsumoa banan-banan fakturatzeko beharra, erabilera arrazionalagoa sustatu eta balizko energia-xahuketarekin amaitzeko. Hala ere, baliabideen eta energia-azpiegituren antolamendu eraginkorragoa izaten jarraitzen du, teoriarik bederen. Izan ere, district heating sistema berriak printzipio zentralizatu horretan oinarritzen dira, biomasa bezalako energia-iturri jasangarriak erabiltzeko aukera gehituta.

Araubide-aldaketaren ondorioz, galdara komunitarioak energia kontsumitzaile handizat hartzen dira, eta horrek dakar parekatu ahal izatea, esaterako, energia-baliabideen erabilera oso intentsiboa egiten duten enpresekin, kontuan hartu gabe azpiegitura horiek atari eta pertsona askori ematen dietela zerbitzu, modu konpartituan eta guztien partaidetzarekin. Erabaki hori oso eragin kaltegarria izaten ari da pertsona horientzat, justifikaziorik ez duena halako instalazioen izaera eta ohiko erabilera aintzat hartuta. Gainera, bereizketak oso zalantzazkoa egiten da galdara-sistema indibidualak dituzten etxebizitza eta pertsonetako, horiek tarifa aratuak baliatzeko aukera dutelako. Halaber, berriro geratu da agerian nola ehunka kilometrora hartutako erabakiek eragin negatiboa izan dezaketen herritarrengan, eta ez daukagu ez erabaki-ahalmenik ez beharrekota den burujabetzarik erabaki horiei aurre egiteko.

Hori guztia dela-eta, honako erabaki proposamen hau aurkeztu dugu:

1. Nafarroako Parlamentuak Trantsizio Ekologikorako eta Erronka Demografikorako Ministerioa premiatzen du berrius ditzan gas naturalaren azken baliabideko tarifa erregulatzen duten arauak, auzokideen komunitateei zerbitzu ematen dieten galdara komunitarioak merkatu arauturako sarbidea izan dezaten.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuia premiatzen du sendotu eta areagotu ditzan eskuragarri dauden laguntza-deialdiak auzokide-komunitateen efizientzia eta energia-aurrezpena hobetzeko.

Iruñean, 2022ko martxoaren 17an

Foru parlamentaria: Laura Aznal Sagasti

---

## **Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuia premiatzen da Vianako Jasokundeko Andre Mariaren eliza zaharberritzeko plan gidari bat egin dezan.**

### *MOZIOA ERRETIRATZEA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko martxoaren 21ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Adieraztea jakinaren gainean dagoela Carlos Mena Blasco jaunak aurkezturiko mozioa erretiratu izanaz. Mozioaren bidez Nafarroako Gobernuia premiatzen zen Vianako Jasokundeko Andre Mariaren eliza zaharberritzeko plan gidari bat egin

zezan, eta 2021eko irailaren 10eko 99. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen (10-21/MOC-00129).

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2022ko martxoaren 21ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

---

**F saila:**  
**GALDERAK**

---

**Galdera, “Joan-etorri” zerbitzurako deialdiari buruzkoa.***ÁNGEL ANSA ECHEGARAY JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko martxoaren 21ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea “Joan-etorri” zerbitzurako deialdiari buruz Ángel Ansa EcheGARAY jaunak aurkezturiko galdera (10-22/PES-00076).

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2022ko martxoaren 21ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikitako Ángel Ansa EcheGARAY jaunak, Legebiltzarren Erregelamenduan 194. artikuluan ezarritakoaren babesean, galdera hau aurkezten dio Lurralde Kohe-siorako kontseilariari, idatziz erantzun dakion.

1. Nafarroako Gobernuak zergatik ez du oraindik argitaratu gazteak herrietako jaietara eramateko “Joan-etorri” zerbitzurako deialdia? Izan ere, zerbitzu hori eskaintzen zen zenbait herritan jaiak eginda daude dagoeneko.

2. Nafarroako Gobernuak noizko aurreikusten du 2022rako deialdia argitaratzea?

3. Zein partidaren bidez egingen du?

Iruñean, 2022ko martxoaren 14an

Foru parlamentaria: Ángel Ansa EcheGARAY

## **Galdera, Nafarroa Susperitu Planaren koordinazio publikoaz arduratzen den Departamentuarterko Batzordearen bilerei buruzkoa.**

*JORGE ESPARZA GARRIDO JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko martxoaren 21ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Jorge Esparza Garrido jaunak aurkezturiko galdera, Nafarroa Susperitu Planaren koordinazio publikoaz arduratzen den Departamentuarterko Batzordearen bilerei buruzkoa (10-22/PES-00077).

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2022ko martxoaren 21ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikia dagoen Jorge Esparza Garrido jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak lehendakariak idatziz erantzun dezan:

1.- Zenbat aldiz eta zer egunetan bildu da Nafarroa Susperitu Planaren koordinazio publikoaz arduratzen den Departamentuarterko Batzordea?

2.- Nor agertu zen haietako bakoitzera?

3.- Zein izan da haietako bakoitzaren gai-zerrenda?

Iruñean, 2022ko martxoaren 15ean

Foru parlamentaria: Jorge Esparza Garrido

---

## **Galdera, Nafarroa Susperitu Planeko Zuzendaritza Batzordearen bilerei buruzkoa.**

*JORGE ESPARZA GARRIDO JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko martxoaren 21ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Jorge Esparza Garrido jaunak aurkezturiko galdera, Nafarroa Susperitu Planeko Zuzendaritza Batzordearen bilerei buruzkoa (10-22/PES-00078).

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2022ko martxoaren 21ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikia dagoen Jorge Esparza Garrido jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak lehendakariak idatziz erantzun dezan:

1.- Zenbat aldiz eta zer egunetan bildu da Nafarroa Susperitu Planeko Zuzendaritza batzordea?

2.- Nor agertu zen haietako bakoitzera?

3.- Zein izan da haietako bakoitzaren gai-zerrenda?

Iruñean, 2022ko martxoaren 15ean

Foru parlamentaria: Jorge Esparza Garrido

## **Galdera, Nafarroa Suspertu Planeko gizarte-kontseiluaren bilerei buruzkoa.**

*JORGE ESPARZA GARRIDO JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko martxoaren 21ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroa Suspertu Planeko gizarte-kontseiluaren bilerei buruz Jorge Esparza Garrido jaunak aurkezturiko galdera (10-22/PES-00079).

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2022ko martxoaren 21ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikia dagoen Jorge Esparza Garrido jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko lehendakariak idatziz erantzun dezan:

1.- Zenbat aldiz eta zer egunetan bildu da Nafarroa Suspertu Planeko gizarte-kontseilua?

2.- Nor agertu zen bakoitzera eta zer kolektibo edo entitatearen ordezkari gisa?

3.- Zein izan da haietako bakoitzaren gai-zerrenda?

Iruñean, 2022ko martxoaren 15ean

Foru parlamentaria: Jorge Esparza Garrido

## **Galdera, Nafarroa Suspertu Planeko neurriak exekutatzeko aldera Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioarekin koordinatzeari buruzkoa.**

*JORGE ESPARZA GARRIDO JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko martxoaren 21ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Jorge Esparza Garrido jaunak aurkezturiko galdera, Nafarroa Suspertu Planeko neurriak exekutatzeko aldera Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioarekin koordinatzeari buruzkoa (10-22/PES-00080).

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2022ko martxoaren 21ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikia dagoen

Jorge Esparza Garrido jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko lehendakariak idatziz erantzun dezan:

1.- Zer mekanismo proposatu zaio Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioari Nafarroa Suspertu Planeko neurrien exekuzioa koordinatzeko?

2.- Zenbat aldiz eta zer egunetan bildu dira, mekanismo horren edo beste baten bidez, Nafarroako Gobernua eta Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioa neurri horiek koordinatzeko?

3.- Zein dira bilera bakoitzera agertutako ordezkariak?

4.- Zein izan da haietako bakoitzaren gai-zerrenda?

Iruñean, 2022ko martxoaren 15ean

Foru parlamentaria: Jorge Esparza Garrido



## **Galdera, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko medikuen lanpostu hutsei edo egiturazkoei buruzkoa.**

*CRISTINA IBARROLA GUILLÉN ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko martxoaren 21ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Cristina Ibarrola Guillén andreak aurkezturiko galdera, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko medikuen lanpostu hutsei edo egiturazkoei buruzkoa (10-22/PES-00081).

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2022ko martxoaren 21ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikia dagoen Cristina Ibarrola Guillén andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko Osasuneko kontseilariak idatziz erantzun dezan:

Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko medikuen lanpostu huts edo egiturazkoen kopurua, Oinarrizko Osasun Eskualde, LELZ, OKLZ, LZA eta ospitale-zerbitzuen arabera xehakatuak.

Iruñean, 2022ko martxoaren 17an

Foru parlamentaria: Cristina Ibarrola Guillén

## **Galdera, Carlos III Osasun Institutuaren txosten bati buruzkoa, zeinak gomendatzen edo premiatzen baitu Nafarroako Osasun Ikerkuntzako Institutuaren eredian aldaketa egitera.**

*CRISTINA IBARROLA GUILLÉN ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko martxoaren 21ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Cristina Ibarrola Guillén andreak aurkezturiko galdera, Carlos III Osasun Institutuaren txosten bati buruzkoa, zeinak gomendatzen edo premiatzen baitu Nafarroako Osasun Ikerkuntzako Institutuaren eredian aldaketa egitera (10-22/PES-00082).

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2022ko martxoaren 21ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikia dagoen Cristina Ibarrola Guillén andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko Osasuneko kontseilariak idatziz erantzun dezan:

1- Ba al dago Carlos III Osasun Institutuaren txosten bat, zeinak gomendatzen edo premiatzen baitu Nafarroako Osasun Ikerkuntzako Institutuaren eredian aldaketa egitera?

2- Zer bilera, zer egunetan eta zer pertsonarekin izan dira legegintzaldi honetan Nafarroako Gobernuaren eta Carlos III.a Osasun Institutuaren artean Nafarroako Osasun Ikerkuntzako Institutuari dagokionez?

3- Txosten teknikorik al dago 2. puntuari dagokionez? Zein, norenak eta zer datatakoak?

4- Aktarik al dago 2. puntuari dagokionez? Zer bilera zehatzenak?

Iruñean, 2022ko martxoaren 17an

Foru parlamentaria: Cristina Ibarrola Guillén

---

## **Galdera, ospitale laguntzan neurtzen diren farmaziako adierazleei buruzkoa.**

*CRISTINA IBARROLA GUILLÉN ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko martxoaren 21ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Cristina Ibarrola Guillén andreak aurkezturiko galdera, ospitale laguntzan neurtzen diren farmaziako adierazleei buruzkoa (10-22/PES-00083).

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2022ko martxoaren 21ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikia dagoen Cristina Ibarrola Guillén andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuako Osasuneko kontseilariak idatziz erantzun dezan:

Zein dira ospitale laguntzan neurtzen ari diren farmaziako adierazleak? Haietako zein hartzen dira kontuan kudeaketa-itunetan?

Iruñean, 2022ko martxoaren 17an

Foru parlamentaria: Cristina Ibarrola Guillén

## **Galdera, Oinarrizko Osasun Laguntzan neurtzen diren farmaziako adierazleei buruzkoa.**

*CRISTINA IBARROLA GUILLÉN ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko martxoaren 21ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Cristina Ibarrola Guillén andreak aurkezturiko galdera, Oinarrizko Osasun Laguntzan neurtzen diren farmaziako adierazleei buruzkoa (10-22/PES-00084).

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2022ko martxoaren 21ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikia dagoen Cristina Ibarrola Guillén andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko Osasuneko kontseilariak idatziz erantzun dezan:

Zein dira Oinarrizko Osasun Laguntzan neurtzen ari diren farmaziako adierazleak? Haietako zein hartzen dira kontuan kudeaketa-itunetan?

Iruñean, 2022ko martxoaren 17an

Foru parlamentaria: Cristina Ibarrola Guillén

## **Galdera, Nafarroako ondare-ondasunen jabeen betebeharrak beteari buruzkoa.**

*MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko martxoaren 21ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkezturiko galdera, Nafarroako ondare-ondasunen jabeen betebeharrak beteari buruzkoa (10-22/PES-00085).

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2022ko martxoaren 21ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren

babesean, honako galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun dezan:

Nafarroako Kultur Ondareari buruzko 2005eko Legean ezartzen diren Nafarroako ondare-ondasunen jabeen betebeharrak direla-eta, ondasun horiek mantendu, gorde eta zaintzeari dagokionez, honako hau jakin nahi dut:

- Lehena. Legea ezarri zenetik Kultura Departamentuak eta Ondare Atalak zenbat jarduketa abiarazi duten ondasunen jabeen begira, eskatzeko eta, kasua bada, exigitzeko haiek mantendu, gorde eta zaintzeko duten betebeharrak bete dezaten.

- Bigarrena. Zenbat jarduketa eta betearazpen abiarazi eta burutu diren 2005etik egun arte Nafarroako Eliza Katolikoaren aurka, ondasun publikoaren defendatzeko eta haren betebeharrak bete daitezen exigitzeko.

Iruñean, 2022ko martxoaren 17an

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

## **Galdera, COVID-19aren aurkako txertatze-guneei buruzkoa.**

*CRISTINA IBARROLA GUILLÉN ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko martxoaren 21ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea COVID-19aren aurkako txertatze-guneei buruz Cristina Ibarrola Guillén andreak aurkezturiko galdera (10-22/PES-00086).

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2022ko martxoaren 21ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikia dagoen Cristina Ibarrola Guillén andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuako Osasuneko kontseilariak idatziz erantzun dezan:

1- COVIDaren aurkako zer txertatze-gune prestatu ditu Nafarroako Gobernuak eta zer denboran egon da prest haietako bakoitza?

2- Zenbat txerto jarri da hilean gune bakoitzean?

3- Langile kopurua hilean txertatze-gune bakoitzeko, eta langile horien profil profesionala.

Iruñean, 2022ko martxoaren 17an

Foru parlamentaria: Cristina Ibarrola Guillén

## **Galdera, jarduketa eskatzen duten higiezinei eta aztarnategiei buruzkoa.**

*MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko martxoaren 21ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea jarduketa eskatzen duten higiezinei eta aztarnategiei buruz Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkezturiko galdera (10-22/PES-00087).

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2022ko martxoaren 21ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako Maiorga Ramírez Erro jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun dezan:

• Nafarroako Gobernuak jarduketa eskatzen duten higiezinei eta aztarnategiei buruz duen zerrenda jakin nahi dut.

Iruñean, 2022ko martxoaren 17an

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

## **Galdera, Next Generation funtsekin ondare-ondasunetako jarduketak finantzatzeari buruzkoa.**

### *MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko martxoaren 21ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkezturiko galdera, Next Generation funtsekin ondare-ondasunetako jarduketak finantzatzeari buruzkoa (10-22/PES-00088).

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2022ko martxoaren 21ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako Maiorga Ramírez Erro jaunak, Legebil-

tzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun dezan:

2022ko martxoaren 15ean, asteartearekin, Kultura eta Kiroleko kontseilari andreak iragarri zuen Nafarroako Gobernua prest zegoela Eliza Katolikoarekin hitzarmena egiteko, Vianako Andre Maria eliza zaharberritze aldera eta beste bi jarduketarako (Tutera eta Oliva), Next Generation funtsekin finantzatuta.

Horri dagokionez, hauxe jakin nahi dut:

- Nafarroako ondarean, oro har, horiek al dira Next Generation funtsekin finantzatzeko baldintzetan kokatzen ahal diren jarduketa bakarrak?

Iruñean, 2022ko martxoaren 17an

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

## **Galdera, Vianako Andre Mariaren inbertsioa ondare publikoko beste jarduketa batzuen aurretik lehenestea justifikatzen duen azterlan tekniko eta ekonomikoari buruzkoa.**

### *MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko martxoaren 21ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkezturiko galdera, Vianako Andre Mariaren inbertsioa ondare publikoko beste jarduketa batzuen aurretik lehenestea justifikatzen duen azterlan tekniko eta ekonomikoari buruzkoa (10-22/PES-00089).

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2022ko martxoaren 21ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako Maiorga Ramírez Erro jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babe-

sean, honako galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun dezan:

2016ko ekainaren 2an Nafarroako Parlamentuak adierazi zuen titulartasun publikoko eraikin historikoetan beharrezkoak diren inbertsioak lehenesteko erabakia. Halaber, erabaki zen titulartasun pribatuko eraikinetan jarduketa eta inbertsio guztien aurretik “azterlan tekniko eta ekonomiko zorrotz bat prestatuko dela, inbertsio hori ondare publikoko beste inbertsio batzuen aldean lehenestea justifikatuko duena”.

Horri dagokionez, hauxe jakin nahi dut:

- Lehen: Kultura eta Kiroleko kontseilariak azterlan tekniko eta ekonomiko zorrotzik al du, Vianako Andre Mariaren inbertsioa ondare publikoko beste jarduketa batzuen aurretik lehenestea justifikatzen duenik?

- Bigarrena: kontsultarik egin al zaie tokiko administrazio publikoei zein diren beren titulartasuneko kultur ondarerako inbertsioaren beharrik?

Iruñean, 2022ko martxoaren 17an

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

## **Galdera, Vianako Andre Maria eliza zaharberritze aldera Eliza Katolikoarekin hitzarmena egiteari buruzkoa.**

### *MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko martxoaren 21ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkezturiko galdera, Vianako Andre Maria eliza zaharberritze aldera Eliza Katolikoarekin hitzarmena egiteari buruzkoa (10-22/PES-00090).

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2022ko martxoaren 21ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako Maiorga Ramírez Erro jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

tzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun dezan:

2022ko martxoaren 15ean, asteartearekin, Kultura eta Kiroleko kontseilari andreak iragarri zuen Nafarroako Gobernua prest zegoela Eliza Katolikoarekin hitzarmena egiteko, Vianako Andre Maria eliza zaharberritze aldera.

Horri dagokionez, hauxe jakin nahi dut:

- Lehena. Xede horretarako hitzarmenaren zirriborrorik ba al dago?

- Bigarrena. Kasua bada, zein izan dira Departamentuaren hasierako baldintzak, irizpideak eta lehentasunak?

- Hirugarrena. Zer inplikazio eduki du bertan Ondare Historikoaren Atalak?

Iruñean, 2022ko martxoaren 17an

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

## **Galdera, Vianako Andre Maria elizako plano bereziak egiteari buruzkoa.**

### *MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko martxoaren 21ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Vianako Andre Maria elizako plano bereziak egiteari buruz Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkezturiko galdera (10-22/PES-00091).

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2022ko martxoaren 21ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako Maiorga Ramírez Erro jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun dezan:

Prentsa idatziaren berrietan egiaztatzen ahal den moduan, Nafarroako Parlamentuko Kultura Batzordeak 2021eko ekainaren 23an Vianako Andre Mariaren elizara egindako bisitaren ondorioz, Artzapezpikutzaren kolaboratzailea den Javier Chérrez Bermejo arkitektoak adierazi zuen plan zuzentzaile bat behar zela eta "borondatea dagoela Vianako Printzearen aldetik, duela zenbait urte hasi baitzuen plan bereziak eginez, bete egin dena, agian jarraitzeko aukerarekin".

Horri dagokionez, hauxe jakin nahi dut:

- Lehena. "Plano bereziak egin ziren" data.
- Bigarrena. Aipatu planoak egiteko erabakia hartu zuen organoa.
- Hirugarrena. Aipatu planoetan oinarritutako obren betetze mailaren definizioa.

Iruñean 2022ko martxoaren 17an

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

## Galdera, Erlijioako irakasleei irakastorduak murrizteari buruzkoa.

*MARÍA RONCESVALLES SOLANA ARANA ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko martxoaren 21ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Erlijioako irakasleei irakastorduak murrizteari buruz María Roncesvalles Solana Arana andreak aurkezturiko galdera (10-22/PES-00092).

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2022ko martxoaren 21ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### GALDERAREN TESTUA

Geroa Bai talde parlamentarioko foru parlamentari Maria Roncesvalles Solana Arana andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuako Hezkuntza Departamentuak idatziz erantzun dezan:

Nafarroan gau egun eskola publikoan erlijio-irakasgaia ematen duten irakasleen irakastorduen murrizketaren aurrean, eta behin jasota Nafarroako Gobernuako Hezkuntza Departamentuaren txostena, non erabateko desadostasuna aurkezten baitu Nafarroako Komunitateko ikastetxe publikoetan erlijio irakasleen lanpostuei eustea bermatzen duen Foru Lege proposamenarekiko, honako galdera hauek aurkezten dira, idatziz erantzun dakien:

Nafarroako Gobernuako Hezkuntza Departamentuak kaleratuko al ditu Erlijioako 56 irakasleen parekideak?

Bestela, lan-kontratadun mugagabe horiek kaleratzen ez badira, murriztuko al dira modu parekidean kontratatzen diren irakasleen lanaldiak? Lanaldiaren zer portzentaje gelditzen zaio erlijio irakasle lan-kontratadun bakoitzari eta batez besteko zer soldatarekin?

Egia al da Hezkuntza Departamentuak Nafarroako 2022ko Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Legean onetsita dagoen aurrekontuan sartu zuela kalkulu bat, non jada murriztuta zegoen jada erlijio irakasleen lanaldiaren murrizketa aplikatzeari dagokion portzentajea, heldu den ikasturtean irakasgaian aplikatuko den murrizketaren arabera?

Kontseilariak 2022ko martxoaren 16an hedabideei egindako adierazpenetan irakasle horietako gehiagorik ez dela kontratatuko dioenean, baiez-tapen hori ordezkapenatarako kontratazioei ere al dagokie?

Irakasle horiek kontuan hartzen ez badira, zein izanen lirateke kaleratzeko baldintzak? Zein kalte-ordain beharko litzateke eta zenbatekoa? (Aplikatzeko den indarreko araua eta ekarriko lukeen kostua).

22/23 ikasturtean kontratuak 21/22 ikasturte honetan dauden bezala mantentzen badira, zenbat euro beharko da irakasleek zenbateko bera kobratu ahal izan dezaten? (Zehaztu ordainsariaren zenbatekoa 21/22ko iraila-abuztuan eta 22/23ko iraila-abuztuan).

Zergatik ez da egon Departamentuaren negoziatorik kolektibo horrekiko?



Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentuak zergatik egiten dio uko kolektibo horri konponbide bat ahalbidetzeari urteetan zehar beste gobernuak egin duten bezala, gaur egun jakin badakigunean erabat egingarri, bideragarri eta legezkoa dela?

Uste al duzu irakasle horiekin Galizian, Katalunian eta Euskal Autonomia Erkidegoan lortutako akordioak legezkoak, araudiaren arabera eta gure errealitateara ekartzeko modukoak direla?

Iruñean, 2022ko martxoaren 17an

Foru parlamentaria: M.<sup>a</sup> Roncesvalles Solana Arana

## **Galdera, Kontratu Publikoei buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legearen 8.4 artikulua aldatzeari buruzkoa.**

### *ÁNGEL ANSA ECHEGARAY JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko martxoaren 21ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ángel Ansa Echegaray jaunak aurkezturiko galdera, Kontratu Publikoei buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legearen 8.4 artikulua aldatzeari buruzkoa (10-22/PES-00093).

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2022ko martxoaren 21ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikia dagoen Ángel Ansa Echegaray jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, galdera hau aurkeztu dio Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko kontseilariari, idatziz erantzun dakion:

Kontuen Ganberak "Tracasa Instrumental SLri egindako mandatuen gaineko gomendioen jarrai-

pena" izenarekin egin duen txostenak, honako hau dio Nafarroako Kontratu Publikoei buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legearen 8.4 artikuluan aldaketari buruz, abenduaren 29ko 20/2020 foru Legearen laugarren xedapen gehigarrian sartzen baita:

Ganbera honen iritziz, kontratazioari buruzko araudiaren aldaketa hori ez dator bat Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/24/EB Zuzentarauak, kontratazio publikoari buruzkoak, 12. artikuluan ezarritakoarekin. Izan ere, 12. artikuluko horren 2. apartatuaren arabera, botere adjudikatzaileraren menpekotasunak diren pertsona juridikoen arteko kontratazioa kontratazio publikoari buruzko arauen aplikaziotik kanpo geldituko da soilik bi pertsona juridiko horiek 12. artikuluan 1. apartatuan ezarritako baldintza guztiak betetzen dituztenean; Tracasa Mercadok ez ditu betetzen baldintza horiek, bere jardueraren ehuneko 20 baino gehiago sektore pribatuarentzat egiten duelako.

1.- Nafarroako Gobernuak aurreikusi al du aipatu artikulua aldatzea Europako araudira egokitzeko?

2.- Hala bada, noiz egingen du?

Iruñean, 2022ko martxoaren 17an

Foru parlamentaria: Ángel Ansa Echegaray

## **Galdera, nekazaritzako elikagaien plan osagarriari buruzkoa.**

### **ÁNGEL ANSA ECHEGARAY JAUNAK EGIN DU**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko martxoaren 21ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea nekazaritzako elikagaien plan osagarriari buruz Ángel Ansa Echegaray jaunak aurkezturiko galdera,koa (10-22/PES-00094).

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2022ko martxoaren 21ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikia dagoen Ángel Ansa Echegaray jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, galdera hau aurkezten dio Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko kontseilariari, idatziz erantzun dakion:

Nafarroak nekazaritzako elikagaien plan osagarriari parte hartuko du 18,7 milioi euroko zuzkidurarekin. Guztira 45,5 milioi dira. 12,1 milioi iri-

tsiko dira Zientzia eta Berrikuntza Ministerioak emandako funtsetatik eta 6,5 Nafarroak berak finantzatzeko ditu.

1.- Zer aurreikuspen dago Zientzia eta Berrikuntza Ministerioak emanen dituen 12,1 milioiak banatzeko, urtearen eta zenbatekoaren arabera?

2.- Zer aurreikuspen dago Nafarroako Gobernuak emanen dituen 6,5 milioiak banatzeko, urtearen eta zenbatekoaren arabera?

3.- Nafarroako Aurrekontu Orokorretako gastuetako zein partidatan sartuko da zenbateko hori?

4.- Zer aurreikuspen dago Zientzia eta Berrikuntza Ministerioak "Energia eta hidrogeno berdea" Plan osagarriari emanen dituen 5,42 milioiak banatzeko, urtearen eta zenbatekoaren arabera?

5.- Zer aurreikuspen dago Nafarroako Gobernuak "Energia eta hidrogeno berdea" Plan osagarriari emanen dituen 3,02 milioiak banatzeko, urtearen eta zenbatekoaren arabera?

6.- Nafarroako Aurrekontu Orokorretako gastuetako zein partidatan sartuko da zenbateko hori?

Iruñean, 2022ko martxoaren 17an

Foru parlamentaria: Ángel Ansa

## **Galdera, gure erkidegoan Ukrainako errefuxiatuak hartzeko baliabideei buruzkoa.**

*JORGE ESPARZA GARRIDO JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko martxoaren 21ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Jorge Esparza Garrido jaunak aurkezturiko galdera, gure erkidegoan Ukrainako errefuxiatuak hartzeko baliabideei buruzkoa (10-22/PES-00095).

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2022ko martxoaren 21ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikia dagoen

Jorge Esparza Garrido jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hauek aurkezten ditu, Migrazio Politiketako eta Justiziako kontseilariak idatziz erantzun ditzan:

1.- Zein dira, galdera honi erantzuteko egunera arte, Nafarroako Gobernuak gure erkidegoan Ukrainako errefuxiatuak hartzeko jarri dituen baliabideak? Xehakatu departamentu bakoitzeko.

2.- Zein dira egoera hori koordinatze aldera beste administrazioek foru exekutiboari eskainitako baliabideak?

3.- Zer baliabide eskaini dio Nafarroako Gobernuak Gobernu zentralari pertsona horiek hartzeko?

4.- Nafarroako Gobernuak aurrekontuko partida berariazkoren bat mugiarazi al du egoera horri aurre egiteko?

Iruñean, 2022ko martxoaren 17an

Foru parlamentaria: Jorge Esparza Garrido

## Galdera, BAME lanpostuei buruzkoa.

*CRISTINA IBARROLA GUILLÉN ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko martxoaren 21ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Cristina Ibarrola Guillén andreak aurkezturiko galdera, BAME lanpostuei buruzkoa (10-22/PES-00096).

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2022ko martxoaren 21ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikia dagoen Cristina Ibarrola Guillén andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean,

honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuko Osasuneko kontseilariak idatziz erantzun dezan:

Hainbat adierazpen publikotan Nafarroako Gobernuko Osasuneko kontseilariak baieztatu du Nafarroa dela biztanleko BAME-ratio handiena duen erkidegoa, baina Osasun Batzordean egin nion galderaren aurrean ez zuen erantzun era ratio hori aipatzean sistema publikoko BAME duen gogoan edo osasun pribatuko BAME lanpostuak ere sartzen dituen. Horregatik guztiagatik,

1.- Nola geratzen da Nafarroa osasun publikoan gainerako erkidegoen aldean biztanleko BAME lanpostuei dagokienez?

2.- Zer ratio dago biztanleko, guztira eta autonomia-erkidego guztietako osasun publikoan, jakintzat emanda informazio hori Osasuneko kontseilariak eskura duela baieztapen horiek egiten dituztenean?

Iruñean, 2022ko martxoaren 17an.

Foru parlamentaria: Cristina Ibarrola Guillén

**G saila:**  
**TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA**

**Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko 2021. urterako langileen plantilla organikoaren aldaketa, Mahaiaren 2021eko urriaren 25eko erabakiaren bidez onetsia.**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko martxoaren 21ean egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Zerbitzu Orokorretako buruak proposamen bat aurkeztu du Nafarroako Parlamentuko egungo plantilla organikoa aldatze aldera (Mahaiaren 2021eko urriaren 25eko erabakiaren bidez onetsia), Argitalpen, Artxibo, Liburutegi eta Dokumentazio Zerbitzuburuak egindako proposamenarekin bat. Espedientea osatu da Kontu-hartzailetzak on-tzat emana.

Aurkezturiko dokumentazioa ikusita, hona ERABAKIA:

1. Onestea Parlamentuaren zerbitzuko 2021. urterako langileen plantilla organikoaren aldaketa,

zeina 2021eko urriaren 25eko Mahaiko erabakiaren bidez onetsi baitzen. Aldaketa honen bidez Transkriptoreen kidegoko hizkuntza-eskakizunik gabeko lanpostu bat “desagertzeko” egoeran dagoela adierazten da eta C1 mailako euskara-eskakizundun transkriptore-lanpostu berri bat bihurtzen da, aipatu kidegoan euskara-eskakizuneko bi lanpostu egon daitezzen.

2. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta Parlamentuko web orrian argitara dadin.

Iruñean, 2022ko martxoaren 21ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

	Kop.	Maila	Izendapen askea	Esklusi-bitatea	Bateraezintasuna	Lanpostu osagarria	Mailako osagarria	Berariazko osagarria	Arrisku berezia	Zuzendaritza postuko osagarria*
<b>ARGITALPENAK, ARTXIBO, LIBURUTEGI ETA DOKUMENTAZIO ZERBITZUA</b>										
Atalburua (5)	1	-	X	55		61,30				
Itzultzaileak (6)	5	A		55		35,30				
Transkriptoreak (11)	6	C				62,68	12			
Liburutegiko laguntzailea eta dokumentalista	2	B			35	49,40				
Administraria (4)	2	C				62,68	12			

(4) C1 mailako euskara-titulua duen lanpostua.

(5) Parlamentuko teknikarien kidegoko funtzionarioekin bete behar da. Lanpostu honen ordainsariak A mailari dagokion soldata hartuko da oinarritzat gehi A mailako soldatari erreferentziatutako osagarriak

(6) Itzulpen eta interpretazio eginkizunak dituen lanpostua.

(11) “desagertzeko” egoeran dagoen hizkuntza-eskakizunik gabeko lanpostu bat bihurtzen da C1 mailako euskara-eskakizuneko lanpostu, existitzen denari gehitzen zaiona, halako moduz non Transkriptoreen kidegoan euskara-eskakizuneko bi lanpostu egon baitira.

## 2021eko abenduaren 31n Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuan lanean ari diren funtzionarioen zerrenda.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko martxoaren 21ean egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Parlamentuko Langileen Estatutuko 14.2 artikulua xedatzen du Mahaiak urtero prestatuko duela Legebiltzarreko funtzionario guztien zerrenda bat, urtean urteko abenduaren 31ko egoeraren arabera, eta bertan agertuko direla funtzionarioen datu pertsonalak, maila, gradua, lanpostua eta administrazio egoera.

Ikusita Zerbitzu Orokorretako buruak 2021eko abenduaren 31ko funtzionarioen zerrenda dela eta eginiko proposamena, ERABAKI DA:

1. 2021eko abenduaren 31n Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuan lanean ari diren funtzionarioen honako zerrenda hau onestea:

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2022ko martxoaren 21ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

IZEN-ABIZENAK	Maila	Gradua	Lanpostua	Administrazio egoera
<b>IDAZKARITZA NAGUSIA</b>				
DOMÉNECH ALEGRE, SILVIA	A	5	Legelari nagusia (1)	Jardunean
<b>Mahaiaren eta Eledunen Batzarraren idazkaritza</b>				
LASECA ESCUER, JOSÉ RAMÓN	C	7	Administrari burua	Jardunean
Lanpostu hutsa	C		Administraria	
<b>Prentsa atala</b>				
Lanpostu hutsa	A		Komunikazioko teknikaria	
Lanpostu hutsa	A		Ikus-entzunezkoen komunikazioko teknikaria (2)	
Lanpostu hutsa	C		Administraria (2)	
<b>Protokolo Atala</b>				
MENA GARCÍA, TOMÁS	B	6	Protokoloko teknikaria (3)	Jardunean
ALDATZ PAYAN, GORKA	C	6	Administraria	Aktiboa
(4).	C		Protokoloko harremanetako idazkaria	
<b>ZERBITZU JURIDIKOAK</b>				
Lanpostu hutsa	A		Legelaria	
Lanpostu hutsa	A		Legelaria	
Lanpostu hutsa	A		Legelaria	
Lanpostu hutsa	A		Legelaria	
<b>Kudeaketa Parlamentarioko Atala</b>				
LEZÁUN JUÁNIZ, MARAVILLAS	C	7	Administraria	Zerbitzu bereziak
Lanpostu hutsa	C		Administraria (2)	
Lanpostu hutsa	C		Administraria	
Lanpostu hutsa	C		Administraria	
Lanpostu hutsa	C		Administraria	

IZEN-ABIZENAK	Maila	Gradua	Lanpostua	Administrazio egoera
<b>ZERBITZU OROKORRAK</b>				
ZOZAYA GARRALDA, SERGIO	B	5	Zerbitziburua Administrazio kudeaketako erdi mailako teknikaria	Zerbitzu bereziak
Lanpostu hutsa	B		Administrazio kudeaketako erdi mailako teknikaria	
Lanpostu hutsa	C		Mantenimenduko ofizial teknikaria	
ANSORENA URRIZA, ANTONIO	D	7	Gelazain nagusia	Jardunean
ARIZCUREN REY, M <sup>a</sup> ÁNGELES	D	7	Gelazaina	Zerbitzu bereziak
ENECOIZ SEGURA, FLORENCIO	D	7	Gelazaina	Zerbitzu bereziak
MARTÍNEZ ORDUÑA, M <sup>a</sup> JESÚS	D	7	Gelazaina	Zerbitzu bereziak
MONEO MARTÍNEZ, M <sup>a</sup> INÉS	D	7	Gelazaina	Jardunean
URMENETA MARÍN, OLGA	D	7	Gelazaina	Jardunean
Lanpostu hutsa	D		Gelazainak (5)	
Lanpostu hutsa	D		Gelazaina	
Lanpostu hutsa	D		Gelazaina	
Lanpostu hutsa	D		Gelazaina	
Lanpostu hutsa	D		Gelazaina	
<b>ARGITALPENAK, ARTXIBO, LIBURUTEGI ETA DOKUMENTAZIO ZERBITZUA</b>				
IRIARTE CILVETI, MIKEL	A	6	Zerbitziburua Itzultzailea	Zerbitzu bereziak
ARANA BAREÑO, ANDER	A	5	Itzultzailea	Jardunean
ARISTEGUIETA OQUIÑENA, XABIER	A	5	Itzultzailea	Jardunean
IRAZUSTABARRENA BARRIOLA, AINHOA	A	5	Itzultzailea	Jardunean
IRIZAR APAOLAZA, ANDER	A	5	Itzultzailea	Zerbitzu bereziak
ITURRI VILLANUEVA, ARACELI	B	6	Liburutegiko laguntzailea eta dokumentalista	Jardunean
ALEGRÍA GOÑI, M <sup>a</sup> CARMEN	B	5	Liburutegiko laguntzailea eta dokumentalista	Jardunean
MIGUÉLIZ GARCÉS, IÑAKI	C	7	Administraria (2)	Jardunean
Lanpostu hutsa	C		Administraria	
ARANAZ MARTÍ, CARLOTA	C	7	Transkriptorea	Jardunean
PALMA ROMERO, FRANCISCA	C	7	Transkriptorea	Eszedentzia
SANTIAGO SEGOVIA, IÑAKI DE	C	7	Transkriptorea (2)	Jardunean
SEVINÉ RUIZ, MERCEDES	C	5	Transkriptorea	Jardunean
Lanpostu hutsa	C		Transkriptorea	
Lanpostu hutsa	C		Transkriptorea	

IZEN-ABIZENAK	Maila	Gradua	Lanpostua	Administrazio egoera
<b>KONTU-HARTZAILETZA ETA EKONOMIA GAIETARAKO ZERBITZUA</b>				
VIDÁN ASTIZ, LAURA	B	5	Zerbitziburua Administrazio kudeaketako erdi mailako teknikaria	Zerbitzu bereziak
ILUNDÁIN ILUNDÁIN, BEATRIZ	B	4	Administrazio kudeaketako erdi mailako teknikaria	Jardunean
Lanpostu hutsa	C		Administraria	
Lanpostu hutsa	C		Administraria	
<b>INFORMATIKAKO, IKUS-ENTZUNEZKOEN SISTEMETAKO ETA TEKNOLOGIAKO ZERBITZUA</b>				
MARZAL PARRA, M <sup>a</sup> ASUNCIÓN	B	7	Zerbitziburua Informatika sistemetako erdi mailako teknikaria	Zerbitzu bereziak
LOYOLA ERASO, PEDRO	A	7	Informatikako goi mailako teknikaria	Jardunean
ARANAZ JIMÉNEZ, EDUARDO	B	6	Sistemen kudeaketarako behin-behineko atalburua Informatika sistemetako erdi mailako teknikaria	Jardunean
<b>Sistemen kudeaketarako atala</b>				
Lanpostu hutsa	C		Sistema informatikoetako teknikari-ofiziala	
Lanpostu hutsa	C		Ikus-entzunezkoen teknikari-ofiziala	

<b>NAFARROAKO ARARTEKOAREN BULEGOA</b>				
BALDUZ GIL, JORGE	B	4	Administrazio kudeaketako erdi mailako teknikaria	Jardunean
LAINEZ GIL, MAR	C	7	Administraria	Aktiboa
Lanpostu hutsa	C		Administraria	

- (1) Izendapen librea, Parlamentuko legelarien, Kontuen Ganberako legelarien edo Nafarroako Gobernuko aholkulari juridikoen artetik. 2021eko abenduaren 31n Nafarroako Parlamentuko legelari batek betetzen du, Mahaiaren 2019ko abenduaren 16ko erabakiaz izendatuta.
- (2) C1 mailako euskara-titulua duen lanpostua.
- (3) B1 mailako ingeles-titulua duen lanpostua.
- (4) Izendapen librea, Legebiltzarreko Mahaiak izendatua Nafarroako Parlamentuko eta Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioiko C edo D mailako funtzionarioen artean. 2021eko abenduaren 31n Nafarroako Foru Komunitateko funtzionario betetzen du, Mahaiaren 2019ko abenduaren 16ko erabakiaz izendatuta.
- (5) Mantentze-lanetako laguntzailearen eginkizunak dituen lanpostua, iraungi beharrekoa, zeina mantentze-lanetako laguntzaile bihurtuko



---

**H saila:**  
**BESTELAKO TESTU ARAU-EMAILEAK**

---

## **Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko langileen aldi baterako kontratazioari buruzko Erregelamendua.**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko martxoaren 21ean egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Ikusirik Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko langileen aldi baterako kontratazioari buruzko Erregelamendu proposamena, legelari nagusiak aurkeztua, eta Langileen Batzordeari entzun ondoren, Nafarroako Parlamentuko Langileen Estatutuaren 4. artikuluari eta lehenbiziko xedapen gehigarriari jarraikiz, ERABAKITZEN DA:

1. Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko langileen aldi baterako kontratazioari buruzko Erregelamendua onestea. Testua erabaki honekin batera doa.

2. Erabaki hau eta onetsitako erregelamendua Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara daitezen agintzea.

Iruñean, 2022ko martxoaren 21ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **Nafarroako Parlamentuko Mahaiaren erabakia, 2022ko martxoaren 21ekoa, “Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko langileen aldi baterako kontratazioari buruzko Erregelamendua” onesten duena**

Nafarroako Parlamentuko Langileen Estatutua 1991ko martxoaren 20an onetsi zuen Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko Batzordeak. Ezartzen du zer kasutan egin ditzakeen Legebiltzarrak langileen aldi baterako kontratazioak, eta azaletik erregulatzen ditu langile horien ordainsari araubidearen nondik norakoak. Lehenbiziko xedapen gehigarrian, estatutu horrek bide ematen du bera arau bidez garatzeko, Nafarroako Parlamentuko Mahaiaren erabaki egokia dela medio, aurrez Langileen Batzordeari entzunda.

Aurreikuspen hori aplikatuz, Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1999ko apirilaren 13an egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko langileen aldi baterako kontratazioari buruzko Erregelamendua onetsi zuen. Arau mul-

tzo horrek Langileen Estatutuan jasotako aldi baterako kontratazioaren kasuak berretsi zituen, eta labor arautu zituen langile kontratadunak hautatzeko prozedurak. Kontratazioarako eraturako zerrenden indarraldia zehaztu zuen, eta Legebiltzarreko funtzionarioek prestakuntzarako dituzten eskubideen azpitik jarri zituen zerrenda horiek.

Langileen aldi baterako kontratazioa hain labor sistematizatzen zuela-eta, erregelamendu hori ez zen nahikoa izangaien zerrenden eguneroko kudeaketan gertatzen ziren gorabeherak konpontzeko, eta Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioan ezarritako araudia aplikatzen zen osagarri gisa, bat etorri Nafarroako Parlamentuko Langileen Estatutuaren bigarren xedapen gehigarrian ezarritakoarekin.

Honako erregelamendu honen xedea da Parlamentuak langileen kudeaketaren arloan araugintzarako duen autonomia baliatzea aurreko erregelamenduan antzemandako hutsuneak betetzeko. Bestalde, erregelamendu honen negoziozko kolektiboa egin da Langileen Batzordearekin batera Negoziazio Mahaian, eta horrela bete egin da Nafarroako Parlamentuko Langileen Estatutuaren 34.2.f) artikuluan xedatutakoa.

Erregelamendu honek egitura hau du: hemeretzi artikulua, bi kapituluatan banatuak; xedapen gehigarri bat, xedapen iragankor bat, xedapen indargabetzaile bat, eta bi azken xedapen. I. kapituluak langileen aldi baterako kontratazioaren araubidea ezartzen du. Zehatz azaltzen ditu kontratuen araubide juridikoa, ordainsarien berezitasunak, kontratuak azkentzeko arrazoiak eta probaldiaren antolaketa.

II. kapituluak aldi baterako kontratazioa kudeatzeko arauak biltzen ditu: langileak hautatzeko printzipioak eta prozedurak, kontratazio zerrenden arteko lehentasun hurrenkera, izangaiei deitzeko prozedura arrunta, uko egite eta baztertze kasuak, eta araubide orokorraren salbuespenak. Esparru horretan, kontuan izan behar da kontratu batzuk desgaitasun aitortua duten izangaiatzat gordetzea aurreikusten dela.

Artikuluen ondoren, xedapen gehigarri bakarrak aurreikusten du oporren, lizentzia eta baime-  
nen eta eszedentzia bereziaren araudia langile  
kontratatuerei ere aplikatzea, horiek Legebiltzarreko  
funtzionarioekin parekatuta. Bestalde, lehenbiziko  
xedapen iragankorrak bide ematen du indarra har-  
tzean izandako lehentasun berarekin kudea daite-  
zen kontratazio zerrenda indardunak, erregela-  
mendu honetako arauak eta printzipioak betez;  
eta bigarren xedapen iragankorrak kontratazio-  
lehentasunaren araubide orokorraren salbuespen  
bat aurreikusten du. Xedapen indargabetzaile  
bakarrak indarririk gabe uzten du Nafarroako Parla-  
mentuaren zerbitzuko langileen aldi baterako kon-  
tratazioari buruz Mahaiak 1999ko apirilaren 13ko  
Erabakiaren bidez onetsi zuen erregelamendua,  
bai eta hura garatzen duten arauak ere. Amait-  
zeko, azken xedapenetako lehenbizikoak  
Idazkaritza Nagusiari ahalmena ematen dio behar  
diren xedapenak eman ditzan erregelamenduaren  
garapenerako eta aplikaziorako, eta azken xeda-  
penetako bigarrenak dio erregelamenduak indarra  
hartuko duela Nafarroako Parlamentuko Aldizkari  
Ofizialean argitaratu eta biharamunean.

## Nafarroako Parlamentuaren zerbi- tzuko langileen aldi baterako kontra- tazioari buruzko Erregelamendua

### I. KAPITULUA Langileak aldi baterako kontratatzeko araubidea.

**1. artikulua.** Langileen aldi baterako kontrata-  
zioaren kasuak.

Nafarroako Parlamentuak aldi baterako langile-  
ak kontratatzen ahalko ditu Nafarroako Parlamen-  
tuko Langileen Estatutuaren 4. artikuluan aurreiku-  
sitako kasuetan.

**2. artikulua.** Kontratuaren izaera.

Aldi baterako langileen kontratazioa adminis-  
tratiboa izanen da. Kontratututako pertsonari alta  
emanen zaio Gizarte Segurantzaren Araubide  
Orokorrean.

**3. artikulua.** Ordainsariak.

Langile kontratatuek betetzen ari diren lanpos-  
tuari dagozkion ordainsarietarako eskubidea izan-  
en dute. Halaber jasoko dituzte graduari dago-  
kion ordainsaria eta emandako zerbitzuengatiko  
antzinatasun-saria, salbu eta beste administrazio  
publiko batengandik jasotzen badute, bai eta fami-  
lia-laguntza ere.

**4. artikulua.** Kontratua azkentzea.

1. Plantilla organikoan dauden lanpostu hutsak  
aldi baterako betetzeko kontratuak berez azken-  
duko dira lanpostua behin betiko betetzen denean  
Langileen Estatutuan eta aplikatu beharreko gai-  
nerako arauetan ezarritako prozeduretatik edozein  
erabiliz.

2. Funtzionarioak ordeztuko aldi baterako kon-  
tratuak, berriz, ordeztutako funtzionarioa lanpostu-  
ra itzultzen denean azkenduko dira. Lanaldi  
murriztua duten langileak ordeztuko kontratuak  
funtzionario horiek lanaldi osora itzultzen direnean  
azkenduko dira.

3. Behar berriei edo zerbitzuaren ondoriozko  
beharrei erantzuteko kontratuen kasuan, kontratua  
azkenduko da bertan ezarritako iraupen epea  
betetzen denean.

4. Kontratua, gainera, honako arrazoi hauen-  
gatik azkenduko da:

– Bi alderdiek hala adostea.

– Kontratututako langileak hala erabakitzea.  
Hamabost egun lehenago, gutxienez, idatzizko  
abisua eman behar dio Parlamentuko Mahaiari.

– Probaldia ez gainditzea.

– Nafarroako Parlamentuko Mahaiak hala  
erabakitzea, kontratazioa egitea ekarri zuten  
beharrak desagertu direla edo kontratua buka-  
tzeko zerbitzu edo antolaketa arrazoia daudela  
justifikatuz gero. Hamabost egun lehenago, gu-  
txienez, horren jakitun jarri beharko du interesdu-  
na.

**5. artikulua.** Probaldia.

1. Bi hilabeteko probaldia ezarriko da. Aldi  
horretan zehar, edozein alderdik desegin dezake  
kontratua, alde bakarreko erabakia hartuta.

2. Ez da probaldirik ezarriko baldin, kontratu  
bat amaitu ondoren, langilea lanpostu bererako  
berriro kontratatzen bada urtebete igaro aurretik.

3. Mahaiak, kasuko zerbitzuburuaren ekimenari  
erantzunez, jotzen duenean langile kontratatutak  
ez duela probaldia gainditu, bere erabakiaren berri  
eman beharko dio Nafarroako Parlamentuko Lan-  
gileen Batzordeari.

### II. KAPITULUA Aldi baterako kontratazioa kudeatzeko arauak

**6. artikulua.** Langile kontratudunak hautatzeko  
printzipioak.

Langile kontratudunen hautapena deialdi publi-  
koaren bidez eginen da, non berdintasun, merezi-

mendu, gaitasun eta publikotasun printzipioak bermatuko diren. Betiere, aldi baterako langileak hautatzeko prozeduretan kontratazioa ahalik eta eraginkortasun eta arintasun handienarekin egiten da.

**7. artikulua.** Hautatzeko prozedurak.

1. Nafarroako Parlamentuak aldi baterako kontrataziorako izangaien zerrendak osatzen ahalko ditu. Zerrenda horien artean lehentasun hurrenkera hau izanen da:

a) Nafarroako Parlamentuko funtzionarioen prestakuntzarako zerrenda, Nafarroako Parlamentuko Langileen Estatutuaren 17.2 artikulua garatzeko Erregelamenduan ezarritakoaren arabera.

b) Nafarroako Parlamentuan sartzeko hautapen prozesuak gainditu arren lanposturik lortu ez duten izangaien zerrendak.

c) Nafarroako Parlamentuan sartzeko hautapen prozesuetan deialdiko probaren bat gainditu duten izangaien zerrendak, deialdi bakoitzean zehazten denaren arabera.

d) Nafarroako Parlamentuak aldi baterako kontrataziorako antolatutako hautaprobaren bidez osatzen diren izangai zerrendak.

e) Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren bitartez aldi baterako kontrataziorako deitutako hautaprobaren bidez osatzen diren izangai zerrendak.

f) Kontratazio zerrenda horietarako bat ere ez badago, edo zerrenda horietan izangairik ez badago eskuragarri, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari eskatzen ahalko zaio bere kontratazio zerrenda indardunetako izangai bat emateko, eskainitako lanpostuaren berdina edo baliokidea eta maila berekoa den lanpostu baten zain dagoena. Eskuragarritasun hurrenkera jarraituko zaio.

**8. artikulua.** Nafarroako Parlamentuko funtzionarioen prestakuntzarako zerrendak.

1. Zerrenda hori osatuko dute Nafarroako Parlamentuan prestakuntzan ari diren eta dagozkien hautaprobak gainditu dituzten langileek, bat etorri Nafarroako Parlamentuko Langileen Estatutuan eta hura garatzen duten arauetan ezarritakoekin.

2. Prestakuntzarako zerrendetan dauden Nafarroako Parlamentuko funtzionarioek lehentasuna izanen dute erregelamendu honen 1. artikuluan aipatzen diren lanpostuak aldi baterako betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Langileen Estatutuan eta hura garatzen duten arauetan ezarritako moduan.

3. Prestakuntzarako zerrendek iraupen muga gabea izanen dute. Funtzionarioen batek lehenetik dagoen zerrenda batean sartu nahi badu, kasuan kasuko hautaprobaren deialdia egiten da.

**9. artikulua.** Nafarroako Parlamentuan sartzeko hautapen prozesuak gainditu arren lanposturik lortu ez duten izangaien zerrendak.

1. Nafarroako Parlamentuan funtzionario gisa sartzeko deialdietan hautapen prozesuak gainditu arren lanposturik lortzen ez duten pertsonak osatuko dituzte zerrenda hauek.

2. Sartzeko hautapen prozesuan lorturiko puntuazio handienaren arabera ezarriko da zerrenda lehentasuna, 13. artikuluan ezarritakoa salbu.

3. Artikulu honen babesean osatutako zerrendek indarrean iraunen dute harik eta zerrenda berriak osatu arte, funtzionarioak oposizio bidez nahiz oposizio-lehiaketa bidez sartzeko hurrenez hurreneko deialdien ondorioz. Orduan, baliorik gabe geldituko dira.

**10. artikulua.** Nafarroako Parlamentuan sartzeko hautapen prozesuetan deialdiko probaren bat gainditu duten izangaien zerrendak.

1. Zerrenda hauetan egonen dira Nafarroako Parlamentuan sartzeko hautapen prozesuren batean parte hartu eta hautaprobaren bat gainditzuten izangaiak, kasuan kasuko deialdian xedatutakoaren arabera.

2. Izangai zerrendan lehentasunak ezartzeko, irizpide hauei eta aplikazio hurrenkera honi erreferatuko zaie, 13. artikuluan ezarritakoa salbu:

a) Nork gainditu duen proba gehien.

b) Nork izan duen guztizko puntuaziorik handiena gainditutako probetan.

c) Berdinketa izanez gero, deialdian xedatutakoari jarraituko zaio.

3. Artikulu honen babesean osatutako zerrendek indarrean iraunen dute harik eta zerrenda berriak osatu arte, funtzionarioak oposizio bidez nahiz oposizio-lehiaketa bidez sartzeko hurrenez hurreneko deialdien ondorioz. Orduan, baliorik gabe geldituko dira.

**11. artikulua.** Nafarroako Parlamentuak aldi baterako kontrataziorako antolatutako hautaprobaren bidez osatzen diren izangai zerrendak.

1. Zerrenda hauetan egonen dira Nafarroako Parlamentuak aldi baterako kontrataziorako antolatutako hautapen prozesuan parte hartu eta hautaprobak gainditzuten dituzten izangaiak, kasuan kasuko deialdian xedatutakoaren arabera.

2. Probetan lorturiko puntuazio handienaren arabera ezarriko da izangai zerrendako lehentasuna, 13. artikuluan ezarritakoa salbu.

3. Artikulu honen babesean osatutako zerrendek sei urte iraunen dute indarrean gehienez ere, onesten direnetik hasita. Baldin eta zerrendak indarrean egonik lanpostu bererako beste zerrenda berri batzuk egiten badira, zerrendarik zaharretako izangaiek lehentasuna izanen dute berrietakoen aldean, zerrenda zaharrenaren indarraldia amaitzen ez den bitartean.

**12. artikulua.** Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren bitartez aldi baterako kontrataziorako deitutako hautapoben bidez osatzen diren izangai zerrendak.

1. Apartatu honetan aurreikusitako hautapen sistema erabiltzen ahalko da aurreko artikuluetan aipatutako zerrendetan deitzeko moduko izangairik ez dagoenean eta justifikatzen denean kontratatzeke premia larria dagoela, edo lanpostu horiek betetzeko zailak direla, berariazko ezaugarriak dituztelako.

2. Hautapen sistema hau erabiltzeko, Nafarroako Parlamentuak deialdi bat onetsi beharko du, non parte hartzeko baldintzak eta egin beharreko hautaprobak ezarriko diren. Deialdian parte hartzen ahalko dute Nafarroako Enplegu Zerbitzuan lan eskatzaile gisa edo enplegua hobetzeko egoeran inskribaturik dauden pertsonak.

3. Zerrenda hauetan egonen dira hautapen prozesuan parte hartu eta hautaprobak gainditu dituzten izangaiak, deialdian xedatutakoaren arabera.

4. Izangai zerrendetako lehentasuna hautaprobetan lorturiko puntuazio handienaren arabera ezarriko da, 13. artikuluan ezarritakoa salbu.

5. Artikulu honen babesean osatutako zerrendek sei urte iraunen dute indarrean gehienez ere, onesten direnetik hasita. Baldin eta zerrendak indarrean egonik lanpostu bererako beste zerrenda berri batzuk egiten badira, zerrendarik zaharretako izangaiek lehentasuna izanen dute berrietakoen aldean, zerrenda zaharrenaren indarraldia amaitzen ez den bitartean.

**13. artikulua.** Desgaitasuna duten pertsonentzako kontratu-erreserba.

1. Aldi baterako kontrataziorako izangai zerrendetan, hiru lanpostuko bat, lehenbizikoa, zerrenda horietan dauden eta % 33ko desgaitasuna edo handiagoa duten izangaientzat erreserbatuko da, betiere hautaprobak gainditzen badituzte eta

frogatzen badute desgaitasun hori bateragarria dela bete beharreko lanarekin eta eginkizunekin.

2. Desgaitasuna aitortua duten izangaiek legezko desgaitasun egoeraren froga aurkeztu beharko dute inskripzioa eskatzerakoan, kasuan kasuko deialdian ezartzen den moduan.

3. Deialdian inskribatu eta gero desgaitasuna suertatzen bada, edo inskribatzerakoan desgaitasunaren frogarik edukitzen ez bada, froga hori kontratazio zerrenden indarraldian zehar noiznahi aurkeztu ahalko da Nafarroako Parlamentuan, zerrendetako pertsonari deitzeko hurrenkera ezartzean desgaitasuna kontuan har dadin.

4. Kontratazio zerrenda bakoitzean izangaiei deitzeko hurrenkera honela izanen da: hiru kontratuko bat, lehenbizikoa, desgaitasuna aitortua duten izangaiei eskainiko zaie, hautaprobetan lortu duten puntuazioaren araberrako hurrenkeran. Desgaitasuna duen izangairik ez badago eskuragarri, kontratua zerrendako izangaiei eskainiko zaie puntuazioaren araberrako hurrenkeran. Bigarren eta hirugarren kontratuak hautaprobak gainditu dituzten izangaiei eskainiko zaizkie, proba horietan lortutako puntuazioaren araberrako hurrenkeran. Laugarren kontratua desgaitasuna duten izangaiei eskainiko zaie, lehenbizikoa bezala; eta bosgarrena eta seigarrena, berriz, bigarrena eta hirugarrena bezala eskainiko dira. Ziklo hori hurrenez hurren errepikatuko da.

**14. artikulua.** Kontratatzeke salbuespenezko lehentasuna.

1. Izangai bat aldi baterako kontratu baten ondorioz aritu denean lanpostu batean eta, arialdia bukatu ondoko 15 eguneko epean, baimendu egiten denean Legebiltzarraren edozein zerbitzutan lanpostu berdinean bat aldi baterako betetzea, Nafarroako Parlamentuak lehenik izangai horri eskainiko dio kontratua, honako baldintza multzo hau betetzen bada:

a) Eskuragarri ez egotea lanpostu hori prestakuntzarako zerbitzu berezietako egoeran betetzeko moduan dagoen izangairik.

b) Izangaia sartuta egotea lanposturako deia egiten den unean indarrean dagoen zerrenda batean.

c) Haren kontratuaren amaiera ez gertatu izana kontratuari uko egiteagatik.

2. Artikulu honi heldurik eginiko kontratazioak ez dira aintzat hartuko 13. artikulua desgaitasuna duten pertsonentzako jasotzen duen kontratu-erreserbaren ondorioetarako.

**15. artikulua.** Deiak amatasunaren edo adopzioaren lizentzia kasuetan.

1. Amatasun- edo adopzio-lizentziarako ezarritako epearen barrenean dauden aldi baterako kontrataziorako izangaiei kontratu bat sinatzeko deia egin eta haiek baiezkua emanaz gero, de facto lanposturaten diren arte erreserbatuko zaie kontratua, zeina une horretan sinatuko baita.

2. Kontratuari baiezkua ematea zilegi izanen da, bakar-bakarrik, haren iraupen aurreikusitako modua ematen badu haiek de facto lanposturatzeko.

3. Lanposturatzeari gauzatu da amatasun- edo adopzio-lizentziarako ezarritako epea amaitzen den egunean, edo, interesdunak hala eskatuz gero, lehenago, betiere errespetaturik amarentzat ezarritako erditze osteko nahitaezko atsedenaldua.

4. Kasu horietan, zerbitzuan emandako aldi gisa aitortuko da hasiera batean amatasun- edo adopzio-egoerarik ez izatearen kasurako aurreikusitako lanposturatzeari egunetik de facto lanposturatzeari unera arte igaro den epealdia. Aitorpen hori kontratua sinatzeari menpe egonen da, eta lanposturatzeari unetik sortuko ditu efektuak.

**16. artikulua.** Deiak egiteko arau orokorrak.

1. Errazago aurkitu ahal izateko, izangaiek gutxienez harremanetarako telefono bat jakinarazi beharko diote Nafarroako Parlamentuari, horrek ezertan galarazi gabe beste kontaktu-telefono batzuk edo posta elektronikoko helbide bat ere eman ahal izatea. Informazio hori une oro eguneratuta mantendu beharko dute.

2. Izangaiei deitzeko orduan, 7. artikulutik 15.era bitarte ezarritako lehentasun irizpideak hartuko dira kontuan.

3. Arau orokor gisa, telefonoz kontratu bat eskaintzeko, gutxienez hiru saio egingen dira izangai bakoitzarekin, hark jakinarazitako harreman-bideak erabiliz, bi eguneko epean zehar. Dei bakoitza frogatuta utzi beharko da, adieraziz zirkunstantziak eta zein egun eta ordutan egin den.

4. Baldin izangai batekin harremanetan jarri eta hari kontratazio-eskaintza eginik, hark ez badu erantzunik ematen, errefusatu egiten duela ulertuko da, eta 17. artikuluan xedatzen dena aplikatuko zaio.

5. Izangaia aurkitzeko modurik ez dagoenean, zerrendako hurrengoengana joko da, eskainitako postua betetzen den arte. Aurkitu ahal izan ez

diren izangaiek beren tokia mantenduko dute kasuko zerrendan.

**17. artikulua.** Kontratazio eskaintzei uko egitea.

1. Izangai batek uko egiten badiu eskainitako lanpostuari, zerrendako azken tokira pasako da, salbu eta honako kasu hauetakoren batean dagoela frogatzen badu:

a) Lanean egotea, indarrean dagoen izendapen, kontratu administratibo edo lan kontratu baten ondorioz.

b) Aldi baterako ezintasuneko egoeran egotea, edo amatasun- nahiz adopzio-lizentziako egoeran. Kontratu bati arrazoi honengatik uko egiten diotene ezin izanen dute berriro eskuragarri egon harik eta behar bezala frogatzen duten arte beren ukoa justifikatu zuen egoera amaitu egin dela.

c) Hiru urte baino gutxiagoko seme edo alaba bat zaintzapean edukitzea, biologikoa nahiz adoptatua. Kontratu bati arrazoi honengatik uko egiten diotene ezin izanen dute berriro eskuragarri egon harik eta uko egitetik gutxienez hilabete igaro arte, salbu eta hori baino lehenago desagertu egiten bada ukoa justifikatu zuen zergatia.

d) Zaintzapean edukitzea odol nahiz ezkontza bidezko bigarren gradurainoko ahaide bat, zeina, istripu edo eritasunagatik, ez den bere kasa bizitzeko gauza. Kontratu bati arrazoi honengatik uko egiten diotene ezin izanen dute berriro eskuragarri egon harik eta uko egitetik gutxienez hilabete igaro arte, salbu eta hori baino lehenago desagertu egiten bada ukoa justifikatu zuen zergatia.

e) Ezkontzagatik nahiz bikote egonkorra eratzegatik, baldin eta eskainitako kontratuaren hasiera-eguna aipaturiko horien eratzegunaren aurreko edo ondoko hamabost egun naturaleko denbora-tarteari barrenean badago.

f) Desgaitasuna duen pertsonaren izaera behar bezala aitortuta edukitzea eta desgaitasun hori bateraezina izatea, bere ezaugarriengatik, kontratua zer lanposturarako eskaintzen den, lanpostu horren baldintza zehatzekin.

g) Izangaiaren erabaki pertsonalarengatik, aurreko urtebeteko epean genero-indarkeriaren biktima izatearen ondorioz.

h) Erakunde ofizial batek emandako beka baten indarraldian.

i) Arrazoi pertsonalak direla-eta, zilegi izanen du bere gogoz eskatzea ez-eskuragarri egoerara pasatua izatea, 6 hilabeteko eperako gutxienez ere.

2. Aurreko apartatuan jasotako kasuetan, f) letrakotan izan ezik, izangaiek behartuta egonen

dira zerbitzu emateko beren eskuragarritasuna jakinaraztera. Jakinarazpen hori egiten ez den bitartean, ez-eskuragarri egoeran egonen dira, eta ez zaie eskainiko kide direneko zerrendetako ezein lanposturik.

3. 1. apartatuan aipaturiko egoeretakoren batean dauden izangaiek, f) letran jasotako egoeran izan ezik, horren froga dokumental eta fede-emailea aurkeztu beharko dute uko egiten dioten lanpostua eskaini zaien egunetik aurrera kontaturiko hilabeteko epean. Hala eginez gero, ukoaren unean izangai zerrendan betetzen zuten postu berari eutsiko diote.

#### **18. artikulua.** Zerrendetatik baztertzea.

Dei egitea eragin duen zerrendatik kanporatuak izanen dira honako kasu hauetakoren batean gertatzen diren izangaia:

a) Eskaintzari baiezkoa ematen zaionetik aste-beteko epean ez sinatzea kasuko kontratua, izangaiari egoztekoa den kausa batengatik.

b) Probaldia ez gainditzea.

c) Sinaturiko kontratuari uko egitea, salbu eta uko horren zergatia denean funtzionario gisa izendatua izatea edo administrazio- nahiz lan-kontratu bat sinatu izatea. Kasu horretan, zerrendako azken tokira pasatuko da.

d) Urtebeteko epean zehar ezinezko suertatu izana, behin eta berriro, izangaiarekin harremanetan jartzea, hark berak emandako telefono-zenbakiak edo posta elektronikoko helbideak erabiliz, hari kontratazio-deia egitearren.

e) Lanpostua abandonatzea.

f) Gerora sortutako arrazoiengatik kontratu-azkentzea, arrazoi horiek eratorriak direnean kontratudunak lanpostuan jarduteko gaitasunik ez izatetik edo lanpostura egokitu ez izatetik, horren agergerria errendimendu eskasa izanik, lanpostuak esleituta dituen eginkizunak eraginkortasunez egitea eragozten duena.

**19. artikulua.** Langileen Batzordearentzako txostena.

Langileen Batzordeari aurretiaz emanen zaio irizpide horien arabera eginen diren kontratazio-proposamenen berri.

**Xedapen gehigarri bakarra.** Langile kontratuetuen enplegu baldintzak.

Langile kontratatuei Nafarroako Parlamentuko funtzionarioentzat ezarritako araudi berbera aplikatuko zaie, oporrei, lizentzia eta baimenei eta eszedentzia bereziari dagokienez.

**Lehenbiziko xedapen iragankorra.** Indarrean dauden kontratazio zerrendak.

Egun indarrean dauden kontratazio zerrendak erregelamendu honetako arau eta printzipioei jarraituz kudeatuko dira, indarra hartzean izandako lehentasun hurrenkeraren arabera.

**Bigarren xedapen iragankorra.** Araubide orokorraren salbuespenak.

14. artikulua (Kontrataziorako salbuespeneko lehentasuna) 1. apartatuko b) letran aurreikusituen duen betekizuna ez zaie eskatuko 55 urte baino gehiago izan eta Nafarroako Parlamentuan deialdiaren xede den lanpostuan gutxienez hamabost urtez aritu diren izangaiei, baldintza horiek betetzen badituzte erregelamendu honek indarra hartzen duen egunean.

#### **Xedapen indargabetzaile bakarra.**

Indarrrik gabe gelditzen da Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko langileen aldi baterako kontratazioari buruz Mahaiak 1999ko apirilaren 13ko Erabakiaren bidez onetsi zuen erregelamendua, bai eta horren babesean emanak eta erregelamendu honen kontrakoak diren ebazpenak ere.

**Azken xedapenetako lehenbizikoa.** Aplikazioa eta garapena.

Legebiltzarreko Idazkaritza Nagusiari ahalmena ematen zaio erregelamendu honen garapenerako eta aplikaziorako behar diren xedapenak eman ditzan.

**Azken xedapenetako bigarrena.** Indarra hartzea.

Erregelamendu honek Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.



